ARTX. E.I./S.E.V.
Saila
Agiri Zk.

BASABERE TA ETXABEREAK

Basabereak etekin gutxikoak dira gizonarentzat. Eizariak ilten dituzte artz, otso, orein, orkatz, basauntz ta basurdeak; baña amaika buruauste, amaika neke bear dira, onelako abere bat ilteko! Erbiak, ugariago ere badira ta, eŕazago ilten ditugu. Etxabereak etekintsuak dira. Zamariak bizkaŕean eramaten gaituzte; eta sendor ta zamak eramateko, gutxi berak bezelakorik. Auen aragia nunbait jaten dute. Guk, euskaldunok, eztugu jaten ez zaldikirik, ez astakirik, ez mandakirik. Elikaturatzat beste etxabereak (abelgoŕi, abeltxe ta zurdabereak) dira oso egokiak.

(Azkue)